

IZAN

Etteraino segurua iristea guztion ardurara da.

Askatasuna, errespetua eta bizikidetzak.

GAITEZEN

DENOK



GAUTXORI

ZERTAN DATZA ZERBITZUA?

Zerbitzu honek lineako ibilbidearen geltoki ofizialen artean geldialdia eskatzeko aukera ematen du, betiere baimenduta dauden kale-tarteetan.

ZEIN ZERBITZUTAN DAGO BAIMENDUTA?

Dbusen Gautxori linea guztietan. Gautxoriak gaueko zerbitzuak dira, 00:00etatik aurrera eskaintzen dira **ostiraletan, larunbatetan eta jai bezperetan.**

B1	Benta Berri-Berio-Añorga
B2	Aiete-Bera Bera
B3	Egia-Intxaurreondo
B4	Amara-Riberas-Martutene
B6	Altza
B7	Igeldo
B8	Miraconcha-Benta Berri-Seminario
B9	Amara-Errondo-Puio
B10	Zubiaurre-Bidebieta-Buenavista

JAITSI 
BEHAR  DUZUNEAN
ESKARIPEKO GELTOKIEN
ZERBITZUAREKIN

NORK ESKATU DEZAKE ESKARIPEKO GELDIALDIA?

Eskaripeko geldialdia gidariari eskatu behar zaio berariaz, eta **emakumeek eta 18 urtetik beherakoek** egin dezakete eskaera. **Jaisteko** baino ez dira izango geldialdiak. Geldialdi horietan ezin izango da autobusera igo.

NOLA ESKATZEN DA ESKARIPEKO GELDIALDIA?

Erabiltzaileak berak jaitsi nahi duen lekua baino geltoki bat aurretik eskatu beharko dio gidariari, zuzenean. Gelditzeko eskaera egin duen erabiltzailea **autobusaren aurreko aldera joan beharko da**, aurreko atetik jaitsi beharko baita.

IBILBIDEAREN ZER ZATITAN EGIN DAITEKE ESKAERA?

Gautxori linea bakoitzak eskaera egin daitekeen kaleak definituta dauzka. Baimendutako geltoki tarteak kolore arrosarekin markatuta daude Gautxori linea bakoitzaren geltoki guztietako termometro edo linea eskeman. Kontsultatu linea bakoitzaren informazioa xehetasun gehiagorako.



ZER BALDINTZA BETE BEHAR DITU LEKU BATEK BERTAN ESKARIPEKO GELDIALDIA EGIN AHAL IZATEKO?

Funtsezko baldintza da **gutxienez 1,5 metroko zabalera duen espaloia egotea eta arrisku egoerarik ez sortaraztea**. Egoera hauetan, nagusiki, ez da jaisterik egongo:

- Ezingo da izkina, bidegurutze nahiz bidebanatze batetik bost metrora baino gutxiagora gelditu.
- Ezingo da oztopatu ibilgailuak pasabide lizentzia dutela behar bezala seinaleztatzen duten eraikinetara pasatzea, ez pertsonek eraikin batera sartu nahiz ateratze ohiko lekuak erabiltzea ere.
- Ezingo da geldialdirik egin seinaleak bete behar dituzten erabiltzaileei seinale horiek ikustea galarazten zaien tokietan, ez eta besteri maniobrak eginarazten zaienetan ere.
- Ezingo da geldialdirik egin irilatxo, erdibitzaile, sestran dauden pasaguneetan, bizikletazaleen pasaguneetan, oinezkoen pasaguneetan eta espaloia janda dagoen lekuetan.
- Ezingo da geldialdirik egin gelditzea debekatuta dagoela seinaleztatuta dagoen nahiz arauk hala ezartzen duten tokietan.

Halere, **zalantzazko egoeretan gidariaren irizpideak edukiko du lehentasuna.**

NOLA ESKATU DEZAKE ESKARIPEKO GELDIALDIA GURPILDUN AULKIAN BIDAIATZEN DUEN PERTSONA BATEK?

Arrapatatik autobusera igotzean, gurpildun aulkian doan bidaiariak (emakumeak edo 18 urte baino gutxiagokoak), non jaitsi nahi duen jakinaraziko dio gidariari. Gidariak erabiltzaileari jakinaraziko dio ea eskatutako lekuan baldintza egokiak dauden arrapala jaisteko eta baldintzak egokiak ez badira beste leku bat proposatuko dio jaisteko.